

Compensar-eko bisita

2008/11/03

Pasa den urriak 23, Compensar-eko zuzendaria den Néstor Rodríguez Ardila jn. eta bere emaztea, Nubia de Rodríguez and. etorri ziren bisitan Arrasatera.

Compensar -Caja de Compensación Familiar-, Bogotá eta Cundinamarca mailako konpentsazio kutxa konplexuenetako bat da eta bisita honen helburuak ondorengoak izan dira: Compensarri buruzko ezagutzan sakontzea baita Arrasateko inguruari buruz ere, baita Fundación Universitaria Panamericana (FUP) elkarrekin duten partehartze proiektuan aurrera egitea ere.

Partaideak, ondorengoak izan dira:

- Didáctica-Colombiako zuzendaria, Isabel Aguirrezabal and.
- Ingeniaritzako Saileko eta Enpresako Zerbitzuen presidenteorde eta zuzendaria, Javier Sotil jn.
- Mondragon Unibertsitateko Errektorea, Iosu Zabala jn.
- Alecopeko Zuzendari Orokorra, José Antonio Yeregui jn.
- Alecopeko Hezkuntza Saileko Zuzendaria Iñaki Pagonabarraga jn.

Mondragón Corporación, Mondragon Unibertsitatea eta Goi Eskola Politeknikoa, Alecop eta Ikerlan izan dira bisitatutako erakundeak

